



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 8a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrei buruzkoa (4. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (7. or.).
- Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, haurdunaldiaren borondatezko etenduraren gaineko politika orokorrari buruzkoa. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak egina (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira abiadura handiko trenaren Iruña-Castejón tarteko obrak berehala geraraz ditzaten. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da curriculum eta antolaketa proposamen bat aurkez dezan eztabaidatu eta bozkatzeko, atzerriko hizkuntzak Haur Hezkuntzako eta derrigorrezko irakaskuntzetako curriculumean kontuan hartzeko tratatzeko. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroan bizi diren pertsona guztientzako osasun laguntzari eutsi behar zaiola, eta berriz ere aldarrikatzen du Nafarroak osasunaren eta autogobernuaren arloetan dauzkan eskumenen defentsa. Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pobrezia energetikoaren aurkako eta haren prebentziorako plan bat egin dezan, etxeko energia-kontsumo oinarritzoei aurre egiterik ez duten familiei laguntzeko neurriak jasoko dituen. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talka-plan bat diseina dezan ez diezaieten argindarraren hornidura ken gizarte-zaurgarritasuneko egoeran dauden familiei. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, herri ekimeneko euskaltegien lana aintzatesten da. Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatean hautatutako diputatu eta senatariak premiatzen ditu beren arbuio sendoa erakuts dezaten eta kontrako botoa eman dezaten Abortuaren Legearen gainean Mariano Rajoyren Gobernuak egin nahi duen erreforman. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak irmoki arbuiatzen baitu sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko Legearen erreformarako aurreproiektua. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroako Gobernuak legea bete behar duela eta diru-laguntza deialdi berri bat egin behar duela, gizarte entitateen bitarteko interes sozialeko enplegu komunitarioko programetarako. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Iruñerriko hiri garraioaren lan-gatazkako aldeak premiatzen baititu gehiago ahalegindu daitezen zerbitzua normalizatzea lortzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behin betiko konponbidea eman diezaion A-1 autobideaz bestelako bide-lotura erabilgarririk ez egoteari Nafarroako Foru Komunitatearen (Ziordia) eta Arabako Lurralde Historikoaren artean. Sustapen Batzordeak onetsia (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2014an ezar dezan kultur produktuen euskarri anitzeko kontsumoa pizteko programa bat. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak bazter utzia (20. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Kutxaren Gizarte Ekintzari atxikitako ondasun artistiko eta kultural guztien inbentario katalogatuari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egin (21. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak ahaleginik egin duen tributu-figura batzuk direla-eta sortu diren desadostasunak Arbitraje Batzordearen bitartez ebazteko, Juan Carlos Longás García jaunak egin (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko langileen laneko gertakizun, lan istripu eta gaixotasunak aseguratzeko edo estaltzeko araubideari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (22. or.).
- Galdera, zerga-onurak aztertu eta zerga-erreforma integralean txertatzeko iritziak eta proposamenak bilatzeko parte-hartze prozesuari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (23. or.).
- Galdera, 2013ko aurrekontuko “Toki entitateen kirol jardueretarako laguntzak” kontusailari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (24. or.).
- Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko gobernuen arteko lan-talde bat sortzeari buruzkoa, EITBren kanalak normaltasunez ikusi ahal daitezen LTD bidez, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (24. or.).
- Galdera, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legeko bigarren xedapen gehigarriari atxiki ahalko zaizkion eragiketen eta transakzioen motari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 2014an zehar garatzea aurreikusten duen legegintza-jarduerari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubideko lehenengo faseko zabalpenaren hektarea kopuruari eta haien jabeentzat izanen dituen eragin ekonomikoei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (26. or.).

- Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitarioak transplante programarako eginiko organo-ekarpenari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (27. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan mediku-plantillarik badagoen organo-emateen programarako organo-ateratzeaz arduratzeko, Patxi Leuza García jaunak egina (28. or.).
- Galdera, asistoliako organo-emateetarako protokoloar buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (29. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zer neurri eta jarduketa zehatz abiarazi behar dituen Nafarroako Gobernuak espetxe politikaren edo/eta presoei laguntza ematearen arloan, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (29. or.).
- Galdera, gizarte entitateen bitartezko interes sozialeko enplegu komunitarioko programetarako diru-laguntzei buruzkoa, Txema Mauleón Etxeberria jaunak egina (30. or.).
- Galdera, Ilundain-Haritz Berri adingabeek neurri judizialak betetzeko zentroa kudeatzeari buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (31. or.).
- Galdera, Antsoingo klinikaren atarian emakume nafarren aurka gertatutako derrigortze-ekintzei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (31. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lan-talde bat eratzeko erabakia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aztertze eta eztabaidatzeko. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (32. or.).
- Lan-talde bat eratzeko erabakia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aztertze eta eztabaidatzeko. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (33. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 1/2013 Foru Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa. Horren bidez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2014. urtera luzatzen da eta beren montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dira (34. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2013ko ekainaren 26an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Comptos Ganberak txosten bat eman du, 2013ko azaroaren 26ko 135. Nafarroako Parlamentuko Aldikari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio aurrekontu orokorrak prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen, hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2012ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2011ko kontu orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egin dira Nafarroako 2012ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Haien edukia Nafarroako Atarian emanen da argitara.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2014ko urtarrilaren 17ko eguerdiko hama-**

biak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2014ko urtarrilaren 17ko eguerdiko hamabiak arte** luza-

tzea. Aipatu foru lege proposamena 2013ko abuztuaren 28ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2014ko urtarrilaren 17ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru

lege proposamena 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko abenduaren 19an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu eta 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru

Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko urtarrilaren 30eko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko abenduaren 19an egindako Osoko Bilkuran, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu eta 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege pro-

posamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko urtarrilaren 30eko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, haurdunaldiaren borondatezko etenduraren gaineko politika orokorrari buruzkoa.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, haurdunaldiaren borondatezko etenduraren gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko 183. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Parlamentari honek jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, haurdunaldiaren borondatezko etenduraren gaineko politikari buruz, eta, batez ere, Nafarroako Gobernuak nafar emakumeen eskubideak bermatzeari buruz, bereziki gaur egungo testuinguruan, ugalketa- eta sexu-eskubideei buruzko legeak aldaketa atzerakoia jasan behar baitu.

Iruñean, 2013ko abenduaren 26an

Eleduna: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira abiadura handiko trenaren Iruña-Castejón tarteko obrak berehala geraraz ditzaten.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen baitira abiadura handiko trenaren Iruña-Castejón tarteko obrak berehala geraraz ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena

Sustapeneko Ministerioak aldatu egin ditu abiadura handiko trena egiteko proiektuak, Nafarroak Zaragoza-Bartzelonarekin eta, Altsasun zehar Gasteizekin dituen loturetan, Bilborekin eta Irunekin -Frantziarako bidea- eta Burgos-Valladolidekin lotzeko.

Iruña-Zaragoza lotura proiektatu da oraingo trenbidea zabalera europarrera egokituta, hirugarren bidea deitutakoaren bidez. Abiadura handiko bideko 70 kilometro baino ez dira eginen, Iruña Gastejonekin lotuko duen tartean.

Gasteiz-Burgos tarte "airean" dago, ez dago argi zabalera europarrera egokituko ote den (hirugarren bidea), noiz eginen den, eta/edo AHT bidea izanen ote den, eta noiz eta nola. Iruña-Gasteiz tarteari dagokionez, argi ikusten da hirugarren bidea dela aukera.

Beste alde batetik, Nafarroako Gobernuak aurkeztu eta Nafarroako Parlamentuak atzera bota dituen aurrekontuetan ez dago inbertsio publikorako politikarik, salbu eta AHTrako inbertsioa.

Ez du inolako errentagarritasun sozialik, ingurumenaren gaineko eragin handia du, eta ez du bermaturik abiadura handiarekin lotzea ez iparraldetik ezta hegoalde ere. Baina gorako jauzia egiten duen inbertsio bakarra, hain zuzen ere, AHTaren Nafarroako tarteara da: % 60,61eko igoera du, 2013ko 57 milioi eurotik 2014ko 92 milioi eurora igaroz.

Gainerako zuzeneko inbertsioak %13,64ko jaitiera izan du, 2013ko 99 milioi eurotik 2014ko 86 milioi eurora igaro baita.

Nafarroako Gobernuaren zuzeneko inbertsioaren erorketa, azken urteotan, ikaragarria izan da. 2008. urtearekin alderatuta, %72 jaitsi da, 306 milioitik 2014ko aurrekontuetan 86 milioi bakarrik egotera igaro delako.

AHT kontuan hartuta, 2014. urterako aurreikusten diren 319 milioiak (inbertsioak gehi kapital transferentziak) Nafarroako BPGren % 1,7 besterik ez dira; 2008. urtean, berriz, % 3,45 (665 milioi) izan ziren, eta 2005ean % 4,53 (723 milioi).

Testuinguru honetan, agerikoa da Iruña-Castejón tarteko AHTko lanek ez dutela inolako justifikaziorik alderdi ekonomikotik, sozialetik edo interes orokorretik.

Eta horri guztiari beharbada arau-haustek gehitu beharko dizkiogu Nafarroako AHTeko lanetan, ingurumenaren gaineko nahitaezko txostenaren espedientea osatu gabe baitago, Nafarroako Auzitegi Nagusiak ebatzi duen bezala.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Espainiako Gobernu premiatzen ditu Abiadura Handiko Treneko Iruña-Castejón tarteko lanak berehala gelditzera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Espainiako Gobernu premiatzen ditu negoziaketak has ditzaten, presazko izaerarekin, Estatuko Administrazio Orokorren, Foru Komunitateko Administrazioaren eta ADIF entitate publikoaren arteko gaur egungo lankidetzaren hitzarmena aldatu eta Nafarroan trenbide proiektu berri bat (Tren-200 edo Tren EuroMED) zehaztu, garatu eta finantzatzeko, benetako ahalmena izanen duena salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko. Horretarako gaurko trenbide sarea erabili, hobetu eta zabalera europarrera egokitu beharko litzateke, Nafarroako bi korridoreetako herri nagusiak arintasun eta maiztasunez lotzeko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da curriculum eta antolaketa proposamen bat aurkez dezan eztabaidatu eta bozkatzeko, atzerriko hizkuntzak Haur Hezkuntzako eta derrigorrezko irakaskuntzetako curriculumean kontuan hartzeko tratatzeko.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita curriculum eta antolaketa proposamen bat aurkez dezan eztabaidatu eta bozkatzeko, atzerriko hizkuntzak Haur Hezkuntzako eta derrigorrezko irakaskuntzetako curriculumean kontuan hartzeko tratatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Badira ia bi hamarkada Nafarroako ikastetxe publikoetan hezkuntza esperientziak eta proposamenak egiten dituztela derrigorrezko ikasleen atzerriko hizkuntzen gaitasuna, bereziki ingelesekoa, hobetzeko. Zenbait ikastetxetan ingelesa ikasteko programak garatu dituzte edo hasiera eman diete, eta oinarrituta daude, teoriaraz bederen, hizkuntzen ikaskuntza integratuz.

Zenbait ikastetxe publikotan proiektuak eta programak garatu dituzte ingelesaren irakaskuntza sendotzeari edo hizkuntzen irakaskuntza integratuari begira, baina alderdi honetatik irakaskuntza ez da planifikatu Nafarroako ikastetxe publikoetarako eredu bat zehaztuz.

Urteetan zehar ikastetxe batzuek parte hartu dute zenbait esperientzian eta proiektutan, eta era berean Hezkuntza Departamentuak, beste erakunde batzuek bezala, honi buruzko proposa-

menak lagundu, diseinatu eta bultzatu ditu. Zehazki, Hezkuntza Departamentuak TIL edo PAI proiektuak ezartzeko ikastetxeak aukeratu ditu, baina ez dira ezagutzen aukeraketa horretarako irizpideak, eta, askotan, ez du kontuan hartu ikastetxeetako klustroen eta eskola kontseiluen jarrera. Beste alde batetik, ikastetxe batzuek interesa erakutsi dute ematen dituzten ikasketetan programa horiek sartzeko. Landa eremuko eskola, oro har, programa eta proiektu hauetatik kanpo geratu da.

Gure ustez, hezkuntza-administrazioaren ardua da hezkuntzako sistema antolatzea, eta horrek eskatzen du bereak dituen ikastetxeetan garatuko diren curriculum komuna eta/edo hezkuntza ereduak zehaztea, bertan ikasi nahi duten guztiei kalitatezko irakaskuntza ematea eta aukera berdintasuna bermatzea. Eta hau, jakina, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzari dagokio.

Gobernuak, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzarako proposamen bat zehaztu beharrean, eta ikastetxe guztietan komunak izan behar diren helburuak eta edukiak definitu eta, behar den malgutasunarekin, ikastetxe guztietan aplikatu ordez, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren alderdi hori erabili du eskola publikoak, diotenez, behar duen errekuperazioa saltzeko, gelditzen ari delako ikasle behartsuekin soilik, eta programa hauek ikasle gehiago erakarriko lukete; edo ikastetxeen arteko diferentzia ezartzeko.

Kontua da, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, gaur egun, zehaztu gabe daukala atzerriko hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzarako aukera bat, ez duela horretarako planik, eta ez dituela behar diren baliabideak eta prestakuntzako estrategiak zehaztu, irakasleen hasierako nola etengabeko prestakuntzari dagokionez.

Helburua bada ikasleak, derrigorrezko irakaskuntza bukatzen dutenean, gai izatea atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko, ezinbestez zehaztu behar da, gutxienez ere, zein diren lanbide profil egokiak, zenbat irakasle elebidun/hirueledun beharko den, eta zenbat denboratan ezarriko den eredu hori era orokorrean, landa eremuko eskolarik txikienera iritsi beharko

luke eta. Beste edozerk, ikastetxe publikoen arteko lehia sustatzeaz gain, ikasleen segregazioa oraindik gehiago areagotzen du.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtebeteko epean Legebiltzar honetan aurkez dezan, eztabaidatu eta bozkatzeko, curriculum eta antolaketa proposamen bat, atzerriko hizkuntzak Haur Hezkuntzako eta derri gorrezko irakaskuntzetako curriculumean sartzeko eta tratatzeko, eta horretarako esparru komuna eta estrategia orokorra ezar ditzan, Nafarroako

irakaskuntza publikoko ikasle guztiek hezkuntzako aukera berak izan ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu proposamenean sar dezala ezartzeko plan bat, proposamena orokortzeko; bertan zehaztuko lirateke irakasleen hasierako prestakuntza, etengabeko prestakuntza eta birziklatzerako behar diren baliabideak eta lanbide profilak.

Iruñean, 2013ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroan bizi diren pertsona guztientzako osasun laguntzari eutsi behar zaiola, eta berriz ere aldarrikatzen du Nafarroak osasunaren eta autogobernuaren arloetan dauzkan eskumenen defentsa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu Nafarroan bizi diren pertsona guztientzako osasun laguntzari eutsi behar zaiola, eta berriz ere aldarrikatzen baitu Nafarroak osasunaren eta autogobernuaren arloetan dauzkan eskumenen defentsa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean presako prozeduraren bidez eztabaidatzeko.

Espainiako Gobernua oztopoz ari da betetzen Nafarroan egoera irregularrean dauden etorkinei ematen zaien osasun-laguntza, gure taldearentzat alderdi oinarrizkoa dena; giza eskubide bat da, arrazatik edo halako nazionalitate bat izatetik kanpokoa; justizia sozialeko kontu bat da, pertsonen arteko berdintasunean sinesteari dagokiona.

Lehenengo eta behin, Konstituzio Auzitegiak, Espainiako Gobernuaren eskariz, erabaki zuen etetea egoera irregularrean dauden etorkinei ematen zaien osasun-laguntzari buruzko foru dekretua, eta berriki Konstituzio Auzitegiak eten egin du Nafarroan bizi diren pertsona guztiei, zein ere den haien administrazio egoera, osasun laguntza ziurtatzen dien foru legea. Foru lege hori UPNren eta PPren babesik gabe onetsi zen.

Auzi hau ebazteko, Espainiako Gobernuak Lankidetzaren Batzorde bat sortu zuen, eta guk susmatzen genuen bezala, haren emaitza bakarra izan da luzatzea Gobernuak foru legea errekurritzeko zituen epeak, eta ez egon litezkeen eskumen auziak ebaztea. Izan ere, kontu hori erabat garbi dago, izan ere, Nafarroak osasun arloko eskumenak eskuratu zituenetik, osasun laguntza gure komunitatearen eskumena da, eta Nafarroako Gobernuak eskura dituen tresna guztiak erabili behar ditu autogobernua defendatzeko.

Ez gatoz bat Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak Legebil-

tzarrean egin zituen adierazpenekin, eta oso kez-kagarriak iruditzen zaizkigu. Berak esan zuen Konstituzio Auzitegiak foru legea eteten bazuen, eta azkenean hori gertatu da, Nafarroak Estatuko errege dekretua aplikatuko zuela. Dekretu horrek osasun laguntza publiko eta doakotik baztertzen ditu paperik gabeko etorkinak, salbu eta haurdu-nak, adin txikikoak eta larrialdiko kasuetakoak.

Aurretik azaldu den guztia dela-eta, gure parla-mentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aur-keztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroan bizi diren pertsona guztientzako osasun laguntzari eutsi behar zaiola, zein ere den haien administrazio egoera, eta aldarrikatzen ditu Foru Komunitateak osasunaren eta autogobernuaren arloetan dauzkan eskumenen defentsa.

2. Nafarroako Parlamentuak formula egokia bilatuko du Nafarroako Administrazioan osasun laguntza doakoa eman dakien Nafarroan bizi diren pertsona guztiei.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du, behar den epean eta moduan ager dadin 8/2013 Foru Legearen konstituzionalta-suna defendatzera, Nafarroan bizi diren pertsonen Nafarroako osasun sistema publikoko osasun laguntza doakoa izateko eskubidea onartzen die-narena, eta dagozkion alegazioak aurkez ditzan, hura defendatzeko eta aipatu foru legea besterik gabe eta kautelaz etetearen aurka egiteko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da pobrezia energetikoaren aurkako eta haren prebentziorako plan bat egin dezan, etxeko energia-kontsumo oinarritzoei aurre egiterik ez duten familiei laguntzeko neurriak jasoko dituen.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita pobrezia energetikoaren aurkako eta haren prebentziorako plan bat egin dezan, etxeko energia-kontsumo oinarritzoei aurre egiterik ez duten familiei laguntzeko neurriak jasoko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-lean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko kide Txema Mauleón Echeverría jaunak, Legebil-tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-an, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da pobrezia energetikoaren prebentziorako eta haren aurkako plan bat egin dezan, etxeko oinarritzoko energia-kontsumoei aurre egiterik ez duten familiei lagun-tzeko neurriak jasoko dituen.

Etxe batean pobrezia energetikoaren egoera dagoela ulertzen da ezinezkoa dutenean energia zerbitzu aski ordaintzea etxeko beharrak asetzeko eta/edo etxebizitzako energia-faktura ordaintzeko diru-sarreraren zati handiegia erabili behar dutene-an.

Pobrezia energetikoa baldintzatzen duten alda-gai nagusiak hiru dira: familiaren diru-sarrerak, energiaren kostuak eta etxebizitzaren kalitatea, efizientziaren aldetik. EPF-Familia Aurrekontuen Inkestaren eta ECV-Bizitza Baldintzen Inkestaren arabera, Espainiako populazioaren % 10ek (4 milioi pertsonak) pairatzen dute pobrezia energeti-

koa, eta arazoa goraka doa. Langabeziak eta krisi ekonomikoak hiritarren erosahalmena higatzen duten bitartean, oinarrizko zerbitzuak, hala nola elektrizitatea, gasa edo ura, etengabe garestitu dira, eta familiaren aurrekontuaren gero eta zati handiagoa bereganatzen ari dira.

2011ko ECVk azpimarratzen du populazioaren % 6k ezin duela etxebizitza tenperatura egokian mantendu, eta portzentaje hori % 8ra igotzen da bakarrik bizi diren emakumeen kasuan. Fenomenoa oraindik ikusezina da, alde batetik etxearen arlokoa delako, eta beste alde batetik pobrezia eta gizarte bazterketaren beste agerpen batzuekin lotuta dagoelako.

Creu Roja Catalunyak 2013ko uztailean egin dako "Vivienda y Colectivos Vulnerables" izeneko azterlanaren arabera, elkarteko erabiltzaileen % 71k aitortzen dute zailtasun larriak dituztela ura, argia eta gasa ordaintzeko, eta % 30i ordaindu gabeko fakturak metatzen zaizkie. % 58k adierazten dute ezin dutela mantendu etxea tenperatura egokian; orain dela bi urte portzentaje hori % 42 zen.

Nafarroan fenomeno hori bikoiztu egin da azken bost urteotan. Hain zuzen ere, 18.500 etxetan -guztizkoaren % 7,7- adierazten dute (INE, Bizitza Baldintzen Inkesta) ez dutela "tenperatura aski beroa" neguko hilabeteetan. Krisiak eztanda egin aurretik, 2007an, etxea bero eduki ezin zuten familiak 9.000 inguru ziren, % 3,9.

Pobrezia energetikoak inpaktu sakona du pertsonen bizitzan, eta haien bizi-itzaropenean eragin dezake. Egiten den balioespena da 2011n pobrezia energetikoak 2.300tik 9.300era bitarte garai aurreko heriotza sortu zituela; trafiko istripuek sortutakoak, berriz, 1.480 izan ziren. Pobrezia energetikoaren ondorioak asko dira: berokuntza ezak higienari eragiten dio, osasunari («heat or eat» dilema, arnasketaren afekzioak eta abar), eta askotan gainhilkortasuna eta gainzorpetzea sortzen ditu, eta isolamendu soziala eta geografikoa ere bai.

EB ere bat dator diagnostikoarekin. CESE-Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialaren 2011ko "Pobrezia energetikoa liberalizazioaren eta krisi ekonomikoaren testuinguruan" izeneko irizpenak azaltzen du pobrezia energetikoa lehentasun sozial berri bat dela eta laguntza behar duela maila guztietan, eta proposatzen du kontuan hartzea pobrezia energetikoa politika energetikoak prestatzerakoan.

CESE-Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialaren 2013ko "Pobrezia energetikoari aurrea hartzeko eta aurka egiteko ekintza europar koordi-

natuaren alde" izeneko irizpenak adierazten du energia funtsezko ondasun komuna dela, ezinbestekoa delako eguneroko jarduera guztietan, eta hiritar guztiei ahalbidetzen diela bizitza duina edukitzea.

Halaber dio pobrezia energetikoak fisikoki eta sozialki hiltzen duela. European 50 milioitik gora pertsona ukitzen ditu. CESEk dei egiten du europar mailako ekintza urgenteak abiarazteko, eta Segurtasun eta Elkartasun Energetikoaren alde Europako Konpromiso bat proposatzen du pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko benetako europar politika bat sustatzeko.

Europako konpromiso horrek bidea emanen luke European ekintza komun eta koordinatu bat abiarazteko, arrail energetikoa gainditzeko. Oinarria izanen litzateke guztiok energiara iristeko eskubidea aitortzea (pertsona guztiek bizitzeko baldintza duinak izan ditzaten).

UE27ko herrialdeetatik Espainiako Estatuak da elektrizitatearen prezio garestienak dituenak, Malteren eta Zipreren atzetik (FACUA 2012). Gurutze Gorriaren 2012ko datuen arabera, bi urtetan gasa % 22 garestitu da, argia % 34, ura % 8,5 eta butano botila % 23.

Bizi garen herrialde honetan kontsumitzaileek elektrizitate garestienetakoa ordaintzen dute. Eurostaten arabera, 2001etik 2012ra, Espainian elektrizitatearen faktura, batez beste, % 105,1 garestitu da. 2007tik 2012ra, % 49. 2006tik azken igoeretara arte kontaktzen badugu, kontsumitzaile txikiarentzat igoera % 88 izan da, eta horri krisi ekonomikoa gehituta, are zailagoa egiten zaie pertsona zaurgarrienei faktura energetikoa ordaintzea, eta gogor handitzen dira pobrezia energetikoa eta horniduraren etenak.

Konpainiek ez dute daturik ematen kuantifikatu ahal izateko ordaintzen ez duten bezeroen kopurua, eta, beraz, horniduraren etenak jasaten dituztenena. Hala ere, egia da gizarte zerbitzuetara gero eta maizago iristen direla horrelako kasuak. Eta udalek eta gizarte entitateek larrialdi sozialetarako laguntzak handitzen dituzten bitartean, hain zuzen ere, gasa, argia eta ura ordaintzeari dagozkionak, hornidura konpainia handiek jarraitzen dute milioitako mozkinak eskuratzen, % 6,78raino iristen direnak, Europakoak % 2,62koak diren bitartean, eta zor irigarriengatik hornidura eteteko agintzen dute.

Estatuan eta Nafarroan ez dago berariazko politikarik, gero eta familia eta etxe gehiagotan pairatzen duten pobrezia energetikoari aurrea hartzeko eta familia guztiei bizirauteko gutxieneko kontsumoak bermatzeko, familiako kide kopurua-

ren eta urtaroaren arabera. Hornidura konpainia guztiek diote gizarte bonoak dituztela familia ahulenentzat, baina ez dira aski, eta gainera, askotan, haien behar handiena dutenak kanpoan gelditzen dira.

Estatuak gaurko gizarte bonoa hobetu beharko luke, kontuan hartzeko etxebizitzaren baldintzak eta familiaren diru-sarrera maila, eta ez bakarrik kontratatutako potentzia edo lan/familia egoera. Halaber, butano-gaserako gizarte bono bat ezartzeko aukera aztertu beharko litzateke, beste herrialde batzuetan jadanik egiten duten bezala.

Martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez, elektrizitatearen eta gasaren barnermerkatuen arloko eta komunikazio elektronikoen arloko zenbait zuzentzauren transposizioa egiten da, eta gasaren eta elektrizitatearen sektoreetako kostuen eta diru-sarreraren arteko bat ez etortzeak eragindako desbideratzeak zuzentzeko neurriak onartzen dira. Dekretuaren testuan pobrezia energetikoa aipatzen da, kontsumitzaile zaurgarriak babesteko neurriak iragartzen dira eta apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuak arautzen duen gizarte bono elektrikora itzultzen da, modu iragankorrean. Aipatu errege lege dekretuak sektore energetikoan hainbat neurri ezartzen ditu eta gizarte bonoa onesten du.

Gobernuak merkatu energetikoan hasi duen erreformak ere ez du, oraingoz, inolako konponbiderik ezarri pobrezia energetikorako, eta tarifa-defizitak faktura oraindik garestiagoa izateko arriskua dakar. Prezioak igotzen ari dira benetako erreforma elektrikorik ez dagoelako, eta horren ondorioa kontsumitzaileek eta berriztagarriek jasaten dute, alde zuzeneko diagnostikorik gabe.

Gainera, sektore elektrikoa arautzeko aldaketek, bereziki berriki egin direnek, kostuak garestitutuko dituzte, eta ukituak izanen dira, batez ere, ordainsarien berrikuspen automatikoa duten kontsumitzaileak. Fakturaren kostu finkoak igoko dituen fakturazio sistemaren aldaketak penalizazio bat gehituko die errenta txikiagoa edukitzeagatik edo efizienteak izateagatik gutxien kontsumitzen dutenei, eta horrela, pobrezia energetikoaren arazoa larrituko du, eta bazterketa areagotuko.

Sektore elektrikoaren ustezko liberalizazioak ez du merkeagoa bihurtu horniduraren prezioa. Tarifa defizitaren arazoa ez konpontzea da pobrezia energetikoaren igoeraren arrazoi nagusia, hura

konpontzeko aukera kontsumitzailearen prezio finkoak handitzea den neurrian, Gobernuak ezikusierena egiten duen bitartean.

Europako esperientzia batzuetan, laguntza puntualak ematen zaizkie talde ahulei, fakturak ordaintzera edo aurreztera eta efizientzia energetikoa lortzera zuzenduak, eta gainera hornidura bermatzen dute une kritikoetan: helburua da deskonexioa eragozteko hilabete hotzenetan edo kontsumitzaile ahulenentzat, alegia, adina, osasuna, ezgaitasuna edo segurtasun finantzarioaren gabezia larria direla eta, norberaren ongizatea eta familiarena bermatu ezin dituztenentzat.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea "pobrezia energetikoa" izeneko fenomenoari aurrea hartzeko eta aurka egiteko plan bat aztertu eta abian jar dezan. Aipatu planak lehentasuna emanen die pobrezia energetikoa jasaten duten etxeei, instalazioen efizientzia eta segurtasuna hobetzeko, laguntzak eskuratzeari dagokionez.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzea aipatu planean hainbat neurri sar ditzan, esate baterako, familiei zuzentzeko laguntzak ematea, osasun arazoak ekiditeko behar diren gutxieneko kontsumo energetikoak ordaindu ahal izateko. Laguntza horiek emateko oinarria izanen da familiaren errenta, irizpide argi, garden eta homogeneoei jarraikiz. Hilabeteko konputuan bizirauteko gutxieneko kontsumoak ezarriko dira, etxeko kide kopuruaren eta urtaroaren arabera; era horretan, gutxieneko kontsumo ezberdinak ezarriko dira eguraldiaren arabera, urtean, gutxienez, bi denboraldi kontuan hartuta: apiriletik irailera, eta urritik martxora.

3. Nafarroako Gobernuak premiatzea, bere eskumenen esparruan sistema bat bila dezan, neguko egitatezko menia bat ezarriko duena; haren bidez, enpresa hornitzaileek ezin izanen lukete eten elektrizitate, gas edo ur zerbitzua ez ordaintzeagatik, betiere, zehaztuko diren familia errentaren baldintzak betetzen badira, edo gizarte zerbitzuen arloko organo eskudunaren txostena dagoenean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talka-plan bat diseina dezan ez diezaieten argindarraren hornidura ken gizarte-zaurgarritasuneko egoeran dauden familiei.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita talka-plan bat diseina dezan ez diezaieten argindarraren hornidura ken gizarte-zaurgarritasuneko egoeran dauden familiei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gizarte erakunde eta entitateek prestatutako hainbat txostenetan aditzera ematen da jende askok argiaren eta gasaren ordainagiriak ordaintzeko zailtasunak dituela Elektrizitate hornidura eteteak are okerragoak bihurtzen ditu jadanik estuak diren bizitza baldintzak, pobrezia jotako etxe askotan.

Gizarte Politiketako Departamentuak aurkeztu zuen Nafarroako Gizarte Bazterkeriari buruzko diagnostikoak dioenez, Nafarroan pobrezia erlatiboa, 2011. urtean, populazioaren % 16,1ekoa zen. Gure gizartean langabeziak irautearen eta haren

tasa igotzearen ondorioz, familia askok zailtasun gogorak izaten dituzte hipotekak eta elikadurako zein energia hornidurako gastu oinarritzkoenak ordaintzeko. Izan ere, ordainagiri horietatik asko gizarte entitateek ordaintzen dituzte, eta, aldi berean, mantak banatu behar izaten dituzte pobrezia energetikoa delakoari aurka egiteko.

Aipatu Nafarroako gizarte bazterketari buruzko diagnostikoaren DAFO analisiak Nafarroako Foru Administrazioan aurkitzen dituen arazoak dira burokrasia, arintasun eza, departamentuen eta administrazioen arteko koordinaketa eta konexio arazoak eta lehentasunen definizio urria. Baina Nafarroako Gobernuaren interesekin lotzen diren berriarazo alderdien artean kokatu behar dugu gizarte-larrialdiko egoerari erantzuna ematea, ekimen berriak zabalitzea eta erreferentziako populazioaren beharrei erantzutea.

Mozioren testua

Kontuan hartuz energia hornidura behar bat dela pobrezian edo arazo ekonomiko larrietan daudenentzat, bereziki oraingo krisialdian, eta DAFO analisisian atzeman diren beharren arabera, Nafarroako Gobernua premiatzen da, presako izaerarekin:

1.- Talka-plan bat diseina dezan ez diezaieten argindarraren hornidura ken gizarte-zaurgarritasuneko egoeran dauden familiei.

2.- Gizarte entitateekin ados dezan gai horretarako jarduketa plan bat, egiturazko erantzun bat emango duena, eta ez soilik koiunturazko erantzun bat.

3.- Gizarte bazterkeriaren aurkako planean neurri gisa sartzea, estrategia integral baten zati bat izateko, eta modu arinean ezarriko dena.

Iruñean, 2013ko abenduaren 26an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, herri ekimeneko euskaltegien lana aintzatesten da.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez herri ekimeneko euskaltegien lana aintzatesten baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu du, 2013ko abenduaren 19ko jabeldura batetik eratorrita, osoko bilkuran eztabaida eta bozka dadin.

Helduen Euskalduntze Alfabetatzeak jada baditu 40 urte luze lanean, ekimen publikoan zein herri ekimeneko euskaltegien bidez.

Laurogei hamarkadaz geroztik izan dute Nafarroako Herri ekimeneko euskaltegiek diru laguntza Nafarroako Gobernuaren aldetik. Asko gehiago, urtez urte Nafarroako Gobernuak hainbesteko bat eskaini die euskaltegi horiei. Luze aritu izan gara ordea herri ekimeneko euskaltegien finantziarioaz. Askotan aipatu da behar besteko babesa ote duen jarduera honek administrazioaren aldetik. Konparazio bat egiteko aldera, administrazioak zuzenean kudeatzen dituen euskaltegiek ikasle orduko 5€ko gastua egiten duela esan ohi da. Aldiz herri ekimeneko euskaltegiek oso urrun ikusten dute gobernuaren laguntza.

Egun 80 dira helduaroan euskara ikasi ahal izateko tokiak, herriak, auzoak. Toki horietatik berriz, eremu publikoan 2 besterik ez dira, gainerrako tokietan euskara eskolak ematen badira herri ekimeneko euskaltegiei esker da. Horrek, ataka estuan jartzen du administrazioa, berak burutu beharreko lana burutzen ari baitira beste batzuk, Euskararen Legean bertan jasotzen dena bete gabe.

Azken urte honetan ordea, abendu amaiera honetan oraindik orain 2013rako esleituta zegoen diru partida geldirik du Nafarroako Gobernuak. Euskaltegi eta gau-eskolei zegokien diru hori geldirik du gobernuak. Gure begietara hori erabat jasanezina da.

Hau guztia aipatu ondotik ondokoa proposatzen du talde honek:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako herri ekimeneko euskaltegien lana aintzatestea haien lanaren bidez milaka herri-tar euskaldundu direlako azken 40 urteetan zehar.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Euskaltegi eta Gau Eskolei" dagokien partida ahalik eta azkarren esleitzen dezan eta, maila berean, neurriak har ditzan 2014an gerta ez dadin aurten gertatu dena.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Helduen Euskalduntze Alfabetatzeari dagokion plangintza bat era dezan, adierazleak zehaztuz, eta noiz eta nork zer egiten duen argi azalduz.

4. Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskaltegietan finantziario itun sistema bat ados dezan, urteko diru-laguntzen gora beheratik ihesi, itunpeko hezkuntzaren finantziario sistemaren pareko zerbait eraikiz.

Iruñean, 2013ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatean hautatutako diputatu eta senatariak premiatzen ditu beren arbuio sendoa erakuts dezaten eta kontrako botoa eman dezaten Abortuaren Legearen gainean Mariano Rajoyren Gobernuak egin nahi duen erreforman.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatean hautatutako diputatu eta senatariak premiatzen baititu beren arbuio sendoa erakuts dezaten eta kontrako botoa eman dezaten Abortuaren Legearen gainean Mariano Rajoyren Gobernuak egin nahi duen erreforman.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ministroen Kontseiluak Jaiotzekoaren bizia babesteko Lege Organikoaren aurreproiektua onetsi zuen iragan abenduaren 20an. Abortuaren legearen aldaketa hori atzerapauso bat da emakumearen eskubideen arloan.

Espainiak haurdunaldiaren borondatezko eten-dura arautzen duen epeen lege bat dauka 2010az geroztik, eta Parlamentu honek behin baino gehiagotan adierazi du Foru Komunitatean lege hori osoki aplikatzearen alde dagoela.

Abortuaren legean PPren Gobernuak orain egin nahi duen erreforma horren bidez, demokraziako 35 urteotan emakumeen eskubideei begira egin den legerik murriztaileena inposatu nahi

digute, herrialde azpigaratuen pare jarriko gintuzkeena.

Aurreproiektu honek ondorio oso larriak izan ditzake emakumeentzat:

- indarrean dagoen legeak aitortzen dizkien askatasuna eta eskubidea kentzen dizkie emakumei.

- Arazo ugari sor ditzake emakumeen osasunerako eta bizitzarako, klandestinitatera eramaten baititu.

- Itxaronaldi mingarri eta alferreko batean eta labirinto batean murgiltzen ditu emakumeak, bi sendagile profesionalen baimena lortzeko.

- Emakumeen arteko desberdintasuna eragiten du berriro ere; izan ere, baliabide ekonomiko askiko emakumeak kanpora joanen lirateke abortatzera, iraganean zoritxarrez gertatzen zen moduan.

Talde sozialistatik libreki erabakitako amatasun-eskubidearen aldeko apustua egiten dugu, zeinak besteak beste baitakar emakumeek beren haurdunaldiari buruz erabakitzea, eta erabaki hori –kontzientea eta arduratsua– errespetatua izatea; hortaz, libreki erabakitako amatasun-eskubidean ezein erlijio-moralen aginduz egindako injerentzia oro arbuiatzen dugu.

Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Legearen erreforma horren aurka gaude, eta arbuiatu egiten dugu Gallardón ministroak iragarritako erreforma horrek ekarriko lukeen atzerapauso hori.

Horregatik guztiagatik, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatean hautatutako diputatu eta senatariak premiatzen ditu beren arbuio sendoa erakuts dezaten eta kontrako botoa eman dezaten Abortuaren Legearen gainean Mariano Rajoyren Gobernuak egin nahi duen erreforma erregresiboa.

- Nafarroako Parlamentuak Abortuaren Legean Gallardón ministroak proposatutako erreforma arbuiatzen du, eta Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege indardunaren aldeko apustua egiten jarraitzen du.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du bere esku dauden bitarteko guztiak baliatuta egin diezaion aktiboki aurre Abor-

tuaren legea dela-eta Rajoyren Gobernuak planteatutako erreformak libreki erabakitako amatasunaren eskubideari begira dakarren injerentzia larriari eta, horrenbestez, beharrezkoak diren ekintza guztiak abiaraz ditzan, emakumeen amatasun libre eta arduratsurako eskubidea bermatzeko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 27an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak irmoki arbuiatzen baitu sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko Legearen erreformarako aurreproiektua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak irmoki arbuiatzen du du Sexu- eta Ugalketa-osasunari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektua, PPK aurkeztua, atzerakoitzat eta emakumeen eskubideen urraketara larritzat jotzen duelako.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du emakumeek duten ugalketa-autonomiarako eskubidearen aitortpenarekiko konpromisoa, eta haien erabaki pertsonala hartzen du haurdunaldia etetearen oinarritzko kausatzat.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio lege-, osasun- eta gizarte-arloetako babes berma dezan, emakumeek modua izan dezaten beren gorputzen gaineko aukera-askatasuna erabiltzeko, ugalketari ere dagokionez.

4. Nafarroako Parlamentuak berresten du bere nahia dela borondatezko haurdunaldi-eteteak osasun-sistema publikoan egin daitezen, osasun-arloko langileen kontzientzia-eragozpena araututa egonda, eta orobat bermaturik edukita zentro

publikoetan behar diren lan-talde profesionalak izatea emakumeen borondatezko haurdunaldi-etetearen eskariari erantzun ahal izateko.

5. Nafarroako Parlamentuak beste behin adierazten du beharrezkoa dela nahi gabeko haurdunaldien prebentzioaren alorrean tinko lan egitea, esparru soziosanitarioen eta hezkuntzako arteko koordinazio eraginkorrerako baliabideak ezarritik eta horiei beharrezkoak diren bitartekoak emanez.

6. Nafarroako Parlamentuak bere jarrera ageritzen du zeraren alde, Sexu- eta ugalketa-osasunaren eta borondatezko haurdunaldi-etetearen martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan egiten den edozein aldaketa bideratua egon dadin emakumeen oinarritzko eta berariazko eskubide direnak zabaltzera, halako moldez non emakumeek erabaki ahal izanzen baitute ama izan nahi duten alaez.

7. Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio gizarte osoari, mobiliza dadin eta sala dezan Alderdi Popularrak abortuaren aferan egin nahi duen aldaketa murriztailea”

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroako Gobernuak legea bete behar duela eta diru-laguntza deialdi berri bat egin behar duela, gizarte entitateen bitartezko interes sozialeko enplegu komunitarioko programetarako.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Gobernuak legea bete behar duela eta, hortaz, diru-laguntza deialdi berri bat egin behar

duela, 510.351 eurokoa, gizarte entitateen bitartezko interes sozialeko enplegu komunitarioko programetarako.”

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Iruñerriko hiri garraioaren lan-gatazkako aldeak premiatzen baititu gehiago ahalegindu daitezzen zerbitzua normalizatzea lortzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentua arbitraje-laudo bat egin izanaren jakinaren gainean dago, eta halaber jabetzen da horren onarpena jadanik adierazi duten langileei dakarkien diru-hersturaz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua, Foru Komunitateko garraio publikoaren azken fineko arduraduna, premiatzen du segi dezan aldean arteko bitartekaritza-lanetan, kon-tuan harturik jadanik badagoela lehenagoko arbitraje-laudo bat.”

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behin betiko konponbidea eman diezaion A-1 autobideaz bestelako bide-lotura erabilgarririk ez egoteari Nafarroako Foru Komunitatearen (Ziordia) eta Arabako Lurralde Historikoaren artean.

SUSTAPEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2013ko abenduaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behin betiko konponbidea eman diezaion A-1 autobideaz bestelako bide-lotura erabilgarririk ez egoteari Nafarroako Foru Komunitatearen (Ziordia) eta Arabako Lurralde Historikoaren artean."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratadain agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide bat hitzar dezan Ziordiko Udalarekin Sustapen Departamentuaren bidez, konponbide bat emate aldera A-1 autobiaz bestelako bide-lotura erabilgarririk ez egoteari herri horren eta Arabako Lurralde Historikoaren artean, eta, behin konponbidea zehaztuta, udal horrekin batera finantza dezan konponbidea."

Iruñean, 2013ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2014an ezar dezan kultur produktuen euskarri anitzeko kontsumoa pizteko programa bat.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2014an ezar dezan kultur produktuen euskarri anitzeko kontsumoa pizteko programa bat"

Legebiltzarreko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko abenduaren

27 egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko abenduaren 13ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Kutzaren Gizarte Ekintzari atxikitako ondasun artistiko eta kultural guztien inbentario katalogatuari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzaren Gizarte Ekintzari atxikitako ondasun artistiko eta kultural guztien inbentario katalogatuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2013ko otsailaren 28an egindako osoko bilkuran onetsi zuen mozio baten bidez, Nafarroako

Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatu zuen Nafarroako Kutzaren Gizarte Ekintzaren ondasun artistiko eta kultural guztien, higigarrien zein higiezinen, inbentario katalogatua eska zezan, Nafarroako Kutzaren Batzorde Kudeatzailearen bidez. Halaber, premiatu zuen Legebiltzarrari inbentarioaren berri eman ziezaion, gehieze ere hiru hilabeteko epean.

Erabaki haren geroztik hamar hilabete iragan dira, eta parlamentari honek ondoko galdera egingen dio Nafarroako Gobernuari, osoko bilkuran erantzun dezan:

Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzaren Batzorde Kudeatzaileari eskatzea Nafarroako Kutzaren Gizarte Ekintzaren ondasun artistiko eta kultural guztien, higigarrien zein higiezinen, inbentario katalogatua presta dezan, eta noizko aurreikusten du Legebiltzar honi ematea, Parlamentuak eta nafar herritarrek haren berri izan dezaten, eta egiaztatu ahal izan dadin espoliazioa izan den edo ez?

Iruñean, 2013ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Diaz

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak ahaleginik egin duen tributu-figura batzuk direla-eta sortu diren desadostasunak Arbitraje Batzordearen bitartez ebazteko.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak ahaleginik egin duen tributu-figura batzuk direla-eta sortu diren desadostasunak Arbitraje Batzordearen bitartez ebazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García,ak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Goicoechea andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoak, 51. artikuluan, Arbitraje-Batzorde bat aurreikusten du, administrazioen arteko auziak edo desadostasunak ebazteko, hitzarmenaren interpretazioa eta aplikazioa direla eta. Baina Alderdi Popularraren Gobernuak sistematikoki konstituziokontraktasun errekurtsora jotzen du desadostasun horiek ebazteko. Egoera hori dela eta, zera jakin nahir da:

Nafarroako Gobernuak ahalegina egin al du figura tributarioen inguruan sortutako diferentziak Arbitraje Batzordearen bidez ebazteko? Zergatik ez da mekanismo hori erabili?

Iruñean, 2013ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, Nafarroako Gobernuak langileen laneko gertakizun, lan istripu eta gaixotasunak aseguratze edo estaltzeko araubideari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak langileen laneko gertakizun, lan istripu eta gaixotasunak aseguratze edo estaltzeko araubideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

1. Zenbat dira Nafarroako Gobernuak langileak ondoko entitate hauetan, laneko gertakizun, lan istripu eta lanbide-gaixotasunak aseguratze edo estaltzeko araubidearen arabera?

– SS (Gizarte Segurantzza)

• Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala

• MATEPSS (Gizarte Segurantzako lan istripuen eta lanbide gaixotasunen mutua)

- Gobernua bera, Gizarte Segurantzaren entitate lankide gisa eratu
 - MUFACE mutualitatea
 - MUGEJU (Justiziako Mutualitate Orokorra)
 - Nafarroako Gobernuako funtzionarioen “erabiler bereziko” osasun laguntzako montepioa

2. Aurreko galderan aipatzen diren estaldura mota bakoitzeko kotizazioek zer zenbateko ekonomiko egiten dute urtero Nafarroako funtzio publikoarentzat (eurotan)?

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, zerga-onurak aztertu eta zerga-erreforma integralean txertatzeko iritziak eta proposamenak biltzeko parte-hartze prozesuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, zerga-onurak aztertu eta zerga-erreforma integralean txertatzeko iritziak eta proposamenak biltzeko parte-hartze prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoecheak, 2013ko abenduaren 17an egin zuen agerraldian, “iritziak eta proposamenak biltzeko parte-hartze prozesu bat” irekitzearen berri eman zuen, “zerga-onurak” aztertzeko eta Gobernuak uda baino lehen aurkeztuko duen “zerga-erreforma integralean” txertatzeko.

Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

1. Parte-hartze prozesu horretara deituak izan diren eragileen, erakundeen eta gainerakoen zerrenda.

2. Parte-hartze prozesuaren kronograma.

3. Parte-hartze prozesuak “zerga-onuren” arloan dituen helburuen definizioa.

4. Prozesuak ekarriko duen gastuaren zenbatekoa zehaztea, eta aipatu gastua aurrekontuetako zein kontusailen kargura egingen den argitzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2013ko aurrekontuko “Toki entitateen kirol jardueretarako laguntzak” kontusailari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, 2013ko aurrekontuko “Toki entitateen kirol jardueretarako laguntzak” kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu Nafarroa Parlamentu-Taldeko parlamentariak, Ganberako Araudiak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari, urgentziaz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren Politika Sozialetako Kirol Institutuak ba al du asmorik “Ayudas para actividades deportivas en entidades locales” diru partida baimentzeko?

Egingen al du diru laguntzen esleipenerako deialdia? Egitekotan noiz egin asmo du 2013ko aurrekontuetako partida hori exekutatzeko?

Iruñean, 2013ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko gobernuen arteko lan-talde bat sortzeari buruzkoa, EITBren kanalak normaltasunez ikusi ahal daitezen LTD bidez.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko gobernuen arteko lan-talde bat sortzeari buruzkoa, EITBren kanalak normaltasunez ikusi ahal daitezen LTD bidez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko gobernuen arteko lan-talde bat sortzeari buruz, EITBren kanalak normaltasunez ikusi ahal izan daitezen LTD bidez, parlamentari honek jakin nahi du:

1.- Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkartzetako kideak.

2.- Zer bilerak aurreikusten diren, eta nola egingen diren.

3.- Zer kronograma aurreikusten den nafarrek EITBren emisioak hartu ahal izan arte.

4.- Bilera horietan erabaki beharreko gaien definizioa, gai teknikoak, ekonomikoak edo edukiei buruzkoak ote diren zehaztuta.

Iruñean, 2013ko abenduaren 17an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legeko bigarren xedapen gehigarriari atxiki ahalko zaizkion eragiketen eta transakzioen motari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legeko bigarren xedapen gehigarriari atxiki ahalko zaizkion eragiketen eta transakzioen motari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nolako eragiketak eta transakzioak aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, berriki onetsi den Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko bigarren xedapen gehigarriari atxiki ahalko zaizkionak?

Iruñean, 2013ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak 2014an zehar garatzea aurreikusten duen legegintza-jarduerari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak 2014an zehar garatzea aurreikusten duen legegintza-jarduerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

. Nafarroako Gobernuak 2014. urtean zehar egin asmo duen legegintza jardura zerrenda, eta haren gutxi gorabeherako kronograma bat.

Iruñean, 2013ko abenduaren 20an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Ubideko lehenengo faseko zabalpenaren hektarea kopuruari eta haien jabeentzat izanen dituen eragin ekonomikoei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubideko lehenengo faseko zabalpenaren hektarea kopuruari eta haien jabeentzat izanen dituen eragin ekonomikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Komunikabide idatziren batean argitara eman denez, Nafarroako Ubidearen lehen fasea handitzeak ukitzen dituen 15.275 hektareetatik 10.000 inguru ureztalur bihurtu dira jadanik. Beste alde batetik, Gobernuak adierazi du lehen fasea handitzeak kostu energetiko ezin txikiagoa izanen duela ezartzen diren ureztalurrak eraldatu eta modernizatzeko, ez dituela ukituko naturgune babestuak, eta aukera emanen duela udako emariak askatzeko Arga eta Ega ibaietara.

Hona galdera:

– Zenbat dira, Gobernuak eskura dituen datuen arabera, lehen fasea handitzeko hektareetatik jadanik ureztalur bihurtu direnak?

– Nolako ondorio ekonomikoak ditu ureztalur bihurtutako hektarea horien jabeentzat ubidea handitzeak? Inbertsioren bat egin beharko dute? Zein kostu gehigarri jasan beharko dute gaur

egungo egoeraren aldean? Gaur egun dauden kostuetatik, zein aurreztuko dute? - Jadanik ureztalur den lurzati baten jabearentzat, zein dira ubidea handitzeak ekarriko dizkion gainerako abantailak edo eragozpenak?

Iruñean, 2013ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitarioak transplante programarako eginiko organo-ekarpenari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitarioak transplante programarako eginiko organo-ekarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

PEI-00414 zenbakiko informazio-eskariari erantzunez, eta, zehazki, Nafarroako Ospitalegunean eta Unibertsitate Kliniketan azken hamar urteotan transplanterako berreskuratutako organo-kopuruari buruzko galderari erantzunez, Departamentuak informatzen digu Nafarroan Nafarroako Ospitalegunean egiten direla organo-erazketa guztiak.

Nafarroan egindako transplanteei buruz abenduaren 13an egindako agerraldian kontseilariak ez zionez erantzun auzi horri buruz ihardespentxandian egindako galderari, honako hau jakin nahi dut:

- Unibertsitate Kliniketan ez da inor hil organoak eman ahal izateko moduan, Nafarroan transplanteak egiteko eta organoak emateko programa abian jarri zenetik?

- Nafarroako Unibertsitate Kliniketan zergatik ez da bat ere organorik lortu emaile gorpu batetik heldu dena?

Iruñean, 2013ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, jakitekoa ea Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan mediku-plantillarik badagoen organo-emateen programarako organo-ateratzeaz arduratzeko.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan mediku-plantillarik badagoen organo-emateen programarako organo-ateratzeaz arduratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

PEI-00414 zenbakiko informazio-eskariari erantzunez, eta, zehazki, organo-emateen ehune-

koa areagotzeko neurri zehatzen bat hartu behar ote den, kontseilariak informatu zuen 2013an jarriko zela abian Nafarroako Ospitaleguneko detekzio-eredua Lizarrako eta Tuterako ospitaleetara hedatzeko proiektua, heriotza entzefalikoko gaixoen organo-emateak areagotzeko xedez, emateen kopurua areagotzeko.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan ba al dago sendagile intentsibistek gidatutako ZIUrik?

Guardiako neurologorik ba al dago bi ospitale horietan?

Eta transplante-koordinatzaileak?

- Aurreikusita al dago heriotza entzefalikoko gaixoen organoak ospitale horietan erauzte, ala emaile horiek ZBU mugikorretan eramanen dituzte erauzketa eginen den ospitalera? Eta, erauzketa eginen den ospitaleaz denaz bezainbatean, ospitale horietan egiten ez badira, zeinetan eginen dira erauzketak?

- Zenbat organo uste da berreskuratuko direla plan horren bidez?

Iruñean, 2013ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, asistoliako organo-emateetarako protokoloar buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, asistoliako organo-emateetarako protokoloar buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

PEI-00414 zenbakiko informazio-eskariari erantzunez, eta, zehazki, organo-emateen ehuneko areagotzeko neurri zehatzen bat hartu behar ote den, kontseilariak informatu zuen 2013an jarriko zela abian asistoliako organo-emateetarako protokoloa.

Parlamentuan abenduaren 13an egindako agerrian erantzun zitzaigun modu horretan 5 bat emaile gehiago egonen dela urtean.

Hona galdera:

- Hori al da espero den asistoliako organo-emateen kopurua?

- Zer giza baliabide eta baliabide material eta zer aurrekontu egonen da plan horretarako? Zein uste da izanen dela proiektu hori ezartzearen kostua?

- Ospitaleguneko Osasun Laguntzako Etika Batzordeak egin al du txostenik asistoliako organo-emateei buruz Nafarroan? Hala baldin bada, horren kopia jaso nahi dut.

Iruñean, 2013ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, jakiteko ea zer neurri eta jarduketa zehatz abiarazi behar dituen Nafarroako Gobernuak espetze politikaren edo/eta presoei laguntza ematearen arloan.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakiteko ea zer neurri eta jarduketa zehatz abiarazi behar dituen Nafarroako Gobernuak

espetze politikaren edo/eta presoei laguntza ematearen arloan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasan handiko galdera hau aurkeztu du, urtarrilaren 9ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri eta jarduketa zehatz abiarazi behar ditu espetxe politikaren

edo/eta presoei laguntza ematearen arloan, euskal preso politiko gehienek –eta horien artean, nafarrek– jendaurrean onartu ostean beren ekintzek eragindako kaltea eta erabaki ostean bakarka baliatzea legearen arabera dagozkien espetxeonurak?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, gizarte entitateen bitartezko interes sozialeko enplegu komunitarioko programetarako diru-laguntzei buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ETXEBERRIA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Etxeberria jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, gizarte entitateen bitartezko interes sozialeko enplegu komunitarioko programetarako diru-laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Etxeberriak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, gaurkotasan handiko ondoko galdera egin du, Gizarte Gaietako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak adierazpen instituzional bat onetsi zuen iragan abenduaren 30ean, zeinaren bidez adierazten baitzuen Nafarroako Gobernuak legea bete behar duela eta, hortaz, diru-laguntza deialdi berri bat egin behar duela, 510.351 eurokoa, gizarte entitateen bitartezko interes sozialeko enplegu komunitarioko programetarako.

Galdera:

Gobernuak ba al du asmorik Parlamentuaren eskaria aintzat hartzeko eta 2014an 510.351 euro gehiago bideratzeko, 2014ko ekitaldiari dagokionaz gain, gizarte entitateen bitartezko interes sozialeko enplegu komunitarioko programetarako?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Ilundain-Haritz Berri adingabeek neurri judizialak betetzeko zentroa kudeatzeari buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Ilundain-Haritz Berri adingabeek neurri judizialak betetzeko zentroa kudeatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den urtarrilaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Orain dela zenbait hilabete, Ilundain-Haritz Berri –adingabeek neurri judizialak betetzeko zentroa– fundazioko arduradunek adierazi zuten zentro hori kudeatzeari uko egiteko aukera aztertzen ari direla, egungo baldintza ekonomikoek ezinezkoa egiten dutelako zentroa kudeatzea.

Hori dela-eta, gure parlamentu-taldeak hauxe galdetu nahi dio Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu behar ditu adingabeek neurri judizialak betetzeko zentroaren kudeaketa behar bezala egin ahal izan dadin?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, Antsoingo klinikaren atarian emakume nafarren aurka gertatutako derrigortze-ekintzei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Antsoingo klinikaren atarian emakume nafarren aurka gertatutako derrigortze-ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, 2014ko urtarrilaren 9ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Antsoingo klinikaren atarian emakume nafarren aurka behin eta berriro gertatutako derrigortze-ekintzen aurrean, zeinetan orain dela gutxi Iruñeko eta Tuterako artzapezpikuak parte hartu baitzuen, parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuaren jarrera zein den eta zer jokabide izanen duen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lan-talde bat eratzeko erabakia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aztertzeke eta eztabaidatzeko.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin "Lan-talde bat eratzeko erabakia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aztertzeke eta eztabaidatzeko". Erabakia Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsi zuen, 2013ko abenduaren 20an egindako bilkuran. Hona testua:

"1. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean lan-talde bat eratzea onesten da. Lantaldearen xedea izanen da aztertzea eta eztabaidatzea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena (8-13/PRO-25), Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena (8-13/PRO-30) eta haiei aurkezturiko zuzenketak, Erregelamenduko 133. artikulua xedatutakoarekin bat.

2. Adieraztea parlamentu-taldeek eledunek lan-talderako hautaturiko kideen berri izan duela:

Sergio Sayas López jauna (UPN)

Juan José Lizarbe Baztan jauna (SN)

Bikendi Barea Aiestaran jauna (Bildu)

Juan Carlos Longás García jauna (Aralar-NaBai)

Amaya Zarranz Errea andrea (PPN)

Txema Mauleón Echeverría jauna (I-E)

Manu Ayerdi Olaizola jauna (Atxiki gabekoa)

3. Adieraztea lan-taldea gaur eratu dela.

4. Xedatzea lan-taldearen lana 2014ko urtarrilaren 13ko 10:00etan hasi eta hilabeteko epean bukatuko dela."

Iruñean, 2013ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lan-talde bat eratzeko erabakia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aztertzeke eta eztabaidatzeko.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin "Lan-talde bat eratzeko erabakia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aztertzeke eta eztabaidatzeko." Erabakia Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsi zuen, 2013ko abenduaren 20an egindako bilkuran. Hona testua:

"1. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean lan-talde bat eratzea onesten da. Lantaldearen xedea izanen da aztertzea eta eztabaidatzea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena (8-13/PRO-25), Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena (8-13/PRO-30) eta haiei aurkezturiko zuzenketak, Erregelamenduko 133. artikulua xedatutakoarekin bat.

2. Adieraztea parlamentu-taldeek eledunek lan-talderako hautaturiko kideen berri izan duela:

Sergio Sayas López jauna (UPN)

Juan José Lizarbe Baztan jauna (SN)

Bikendi Barea Aiestaran jauna (Bildu)

Juan Carlos Longás García jauna (Aralar-NaBai)

Amaya Zarranz Errea andrea (PPN)

Txema Mauleón Echeverría jauna (I-E)

Manu Ayerdi Olaizola jauna (Atxiki gabekoa)

3. Adieraztea lan-taldea gaur eratu dela.

4. Xedatzea lan-taldearen lana 2014ko urtarrilaren 13ko 10:00etan hasi eta hilabeteko epean bukatuko dela."

Iruñean, 2013ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2013 Foru Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa. Horren bidez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2014. urtera luzatzen da eta beren montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dira.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion ahalmena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 1/2013 Foru Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa. Horren bidez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2014. urtera luzatzen da eta beren montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dira. Foru lege dekretua 2013ko abenduaren 31ko 250. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta Nafarroako Gobernuak igorri du Nafarroako Parlamentuak baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2014ko urtarrilaren 9ko Osoko Bilkuran eginen dela 1/2013 Foru Lege Dekretua baliozkotzeari edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipaturiko foru lege dekretua.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1/2013 Foru Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa. Horren bidez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2014. urtera luzatzen da eta beren montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dira

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen bidez, Nafarroako Parlamentuak presako zenbait neurri onetsi zituen Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan. Aipatu neurriak, funtsean, ekonomiaren eta aurrekontuen egungo egoeran oinarriturik hartu ziren, eta horietako gehienen indarraldiari dagokionez, erabaki zen 2012. urtera mugatu zela, eta gerora erabakiko zela hurrengo urteetan luzatuko zen ala ez.

Abenduaren 26ko 25/2012 Foru Legearen bidez, Nafarroako Parlamentuak 2013. urtera luzatu zituen ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legean aurreikusitako zenbait neurri. Neurri horien indarraldia 2013ra luzatzea eragin zuten inguruabarrak aldatu ez direnez, beharrezkoa da 2014. urtera ere luzatzea, eta horretarako, beharrezkoa da legebiltzarreko arau bat garatzea.

Alde horretatik, foru lege dekretu honen bidez luzatu eginen da 2013an indarrean izandako neurri berdinen indarraldia, hots, Parlamentuaren gehingoaren borondateari jarraikiz onetsitako abenduaren 26ko 25/2012 Foru Legean ezarritakoa. Hona, neurri horiek:

– Langileek zerbitzu aktiboan segitzeko luza-pena etetea.

– Zerbitzuagatikoko dietak kentzea.

– Osasun Laguntzaren Zerbitzuko “Erabilera berezia” delako modalitateko tarifak erabiltzeko mugak.

– Nafarroako Gobernuak kideei eta gainerako goi karguei dagozkien neurriak.

Halaber, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen 25.2 artikulua ezartzen du pentsioen zenbatekoa urtero eguneratuko dela, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege bakoitzean kasuan kasuko ekitaldi ekonomikorako ezartzen duen ehunekoaren arabera. Alde horretatik, aintzat hartu beharra dago ez dagoela Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legerik 2014rako, izan ere, Nafarroako Parlamentuak, 2013ko abenduaren 10ean egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez, atzera bota du eguneraketa hori jasotzen zuen Nafarroako Gobernuaren proiektua.

Hori horrela izanik, bidezkoa da lege-mailako arau bat onestea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako klase pasiboen pentsioen 2014rako eguneraketa jasotzeko. Aurreko urteetan bezala, erreferentziatzen hartuko da pentsio publikoek urte horretan jasaten duten igoera, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak horretarako xedatzen duenarekin bat.

Foru lege dekretu honetan jasotako eguneraketaren arabera, zenbait inguruabarrek tratamendu berezia behar dute, esate baterako, alargun- eta umezurtz-pentsio minimoek, izan ere indarreko araudiak lanbide arteko gutxieneko soldaterekin arautzen ditu. Era berean, eta pentsio publikoen arloko araudi indarduna aplikatzeko, zehaztu da pentsioak ez direla eguneratuko baldin eta pentsio horiek berek bakarrik edo onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuekin batera pentsio publikoetarako oro har urtean ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen badute.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua hauxe ezartzen du 1. zenbakian:

“1. Kasu berezi eta oso presakoetan, Nafarroako Gobernuak behin-behineko legezko xedapenak eman ahal izanen ditu, foru lege-dekretu forma hartuko dutenak. Ezin izanen dira foru lege-dekretuaren xede izan honakoak: Foru Komunitateko erakundeen eta nafarren eskubideen, betebeharren eta askatasunen garapen zuzena, lege organiko honetan arautuak daudenena; lege organiko honen erreforma, eta lege hau garatzeko emandako foru legeena, legean bertan espresuki aipatzen

direnena, hain zuzen; hauteskunde-araubidea; eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.”

Gorago deskribatutako aparteko eta premiazko inguruabarrak direla-eta –bereziki 2014ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legerik ez izate–, beharrezkoa da foru lege dekretu bat onestea, izan ere aipatu lege organikoak ezartzen duen bezala, langileen arloko presako neurriek, esaterako pentsioak eguneratzeak, kasuan kasuko urtearen urtarrilaren 1a baino lehen hartu behar dute indarra.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,

DEKRETATU DUT:

1. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

2014. urtera luzatzen dira Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, hots, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1., 5., 6. eta 8. artikuluetan aurreikusitakoak.

2. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak eguneratzea.

1. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek, indarreko araudiaren arabera eguneratzeko eskubidea dutenek, pentsio publikoek urte horretan duten igoera bera izanen dute.

2. Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, gutxieneko alargun- eta umezurtz-pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatari buruzko araudi indardunean ezarritako erreferentziaren mende egonen dira.

3. Pentsio publikoen arloko indarreko araudia aplikatzeko, eguneraketa ez da aplikatuko baldin eta aitortua badago edo etorkizunean aitortzen bada pentsioek, berek bakarrik nahiz onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuekin batera pentsio publikoetarako urtean ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen badute.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuz-

tuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.
